

Araudia

Zer da "orienteeing" delakoa?

Iaz parte hartu bazenuten aurten adituak izanen zarete! Hala ere zenbait kontu birgogoratuko dizuegu!

Kirol bat da, Orientazioa, mapa eta iparrorratza eskuan duzula kontrol edo baliza deituriko puntu batzuetatik pasatzean datza.

Eta horixe bera da, baina kultura-pistekin hornitua, proposatzen dizueguna.

Argibide gehiago: Nafarroa Kirol Elkarte

<http://orientaciondeportivonavarra.blogspot.com.es/p/orientacion.html>

Probaren garapena

Kasu zehatz honetan jolasean topatu behar dira mapa batean orientazioko sinbologiarekin (oso erraz antzeman eta berehala ikasten direnak) markaturiko puntuak. Puntu horiei buruzko pistak web orrian eman dira ezagutzera.

Kontrolak mapan seinalizatutako egonen dira borobil eta zenbaki baten bitartez. Zenbaki hori (34 esaterako) izanen da leku horretan kokaturiko balizak duen kode zenbakia eta, hortaz gain, hamarreko kopuruaren arabera izanen da aurkitzeagatik lortutako puntuazioa. Adibidez: 34 zenbakidun kontrol edo balizak 3 puntu balio du, 100 zenbakidunak 10, eta abar. Zenbakiak 31 eta 100 artekoak izanen dira.

OHARRA! Web orrian agertuko diren pisten zenbakiak ez dira izanen mapan bertan agertzen diren berberak.

16 kontrol egonen dira, Uharteko udal dermiotik barreiatuak eta, gehienez ere, bi ordu izanen dira (penalizaziorik gabe) gehienezko puntuazioa lortzeko.

Bi ordu horiek pasata, 5 puntuko penalizazioa ezarriko da jarritako ordu mugatik pasatzen diren 5' frakzio bakoitzagatik, guztira 30' arte. Hortik aurrera, taldea deskalifikatua izanen da.

Gainera aurten Argazki Rallya egonen da eta puntu gehiago lortzen lagunduko dizute.

Bizikleta eta kotxea erabiltzeak ez du balio, soilik oinak erabil daitezke!

Behar den materiala

Eguraldiaren arabera arropa egokia, kontutan harturik kontrol batzuk eremu naturaletan, mendia eta ibaia, kokaturik daudela. Bainujantzirik ez da behar ;-)

Mapa, zorroa eta pistak, antolakuntzak emandakoak. Orientazio probak egitera ohituta dagoenak ez du pisten beharrik izanen, are gehiago ez bada Uhartan bizi edo ez bada ezagutzen, jarritako pistek ez baitizkio gauza handirik adieraziko lekuak bilatzerakoan. Aldiz, mapan bai jarriko direla kirol honetan ohikoak diren kontrolen deskripzioak.

Talde bakoitzak erloju bat eta boligrafoa eduki beharko ditu, bai eta talde bezala denei bereizten dien zerbaitekin, adibidez, jantzi edo osagarriren bat.

Apirilaren 24a arte Web orrian <http://conoce-uharte-ezagutu.info/eu/category/jornada-familiar-conoceuharteezagutu/> argibideak argitaratuko dira eta bertan jarritako pistak hurbilduko zaituztete, herriaren historian eta ezagupenean barneratu ahala, bisitatu behar dituzuen kontrolak dauden lekuetara.

Izena emateko epea apirilaren 22ra arte (hau barne) zabalik egonen da Kultur Etxean, Ugazten edo honako [formularioa](https://docs.google.com/forms/d/1qHr-8WLqLYvsC5n0L15zqv5HMNHZHqmqzXCbRvWvdcwA/viewform) betez <https://docs.google.com/forms/d/1qHr-8WLqLYvsC5n0L15zqv5HMNHZHqmqzXCbRvWvdcwA/viewform> . Bertan eman beharreko datuak: taldearen izena, parte-hartzaileena eta maila (familiarra edo lagunartea). Haurrak familien

ardurapean egonen direla kontutan izan eta lagun taldeak 12 urte gorakoak izanen direla (edo 2015ean 12 urte betetzen dutenak).

Apirilak 26, igandea

10:00etan San Juan plazan, izen-emateen ordainketa (1€ pertsonako).

10:10ean jolasari buruzko argibideak. Azkar batean azalduko zaizue jolasaren nondik norakoak.

10:20ean Uharteko udal dermioaren mapa banaketa, bertan bisitatu beharreko puntuak markaturik daudela, eta estrategien prestaketa.

10:30ean taldeen irteera. Taldeak, 2 eta 5 pertsonen artean osatuak, elkaturik mantendu behar dira jolasa garatzen den bitartean.

12:30ean jolasaren bukaera ordua. Hemendik aurrera, ordu honetatik pasatzen den 5' frakzio bakoitzagatik 5 puntuko penalizazioa jarriko da.

13:00etan helmuga itxiko da eta Ogi-mami jatea hasiko da.